

QUEER TEORIA

Irain baten berjabetzea

Egilea: Eli Astiasaran

Webgunea: www.gaiak.net

2013/02/17

Hitz bakoitzak istorio bat du atzean. Istorio bakoitzak borroka bat. Baieztapen hori egin dezakegu queer hitzaren gainean.

Queer kontzeptu ingelesak arraro edo ezohiko esan nahi du. Garai batean, queer esatea iraintzea zen. Ingeles hizkuntzan VIII. mendean sortu zenean, queer hitza izaera alferrikako, faltsu, eszentriko izateagatik edo gaizki eginikoagatik gizartearen jokamoldea eta funtzionamendua zalantzan jartzen zituena izendatzeko erabiltzen zen. Queer izenpean biltzen ziren tranpatiak, lapurrak, mozkorrak, ardi beltzak eta sagar ustelak; baita arrotasun edo berezitasun bategatik lehen mementutik emakume edo gizontzat hartzen edo ezagutzen ez zirenak ere.

Queer hitzak, erreferentzia egiten zion objektuaren nolakotasuna definitu baino, hitz egiten zuenak definitu nahi zuenari izena jartzeko zuen gaitasun eza zuen atzean. Adierazpen linguistikoaren akatsek sortutako hutsunea zegoen queer kontzeptuaren sorreran. Queer zenak konfiantza eza sortzen zuen nazio eta espeziearen erreprodukzioaren oinarrian, eta familia burgesaren erdigunean balio heterosexuala defendatzen zuen viktoriar gizartean. Instituzio heterosexualari eta horren arauari ihes egiten zietenak, harremantzeko eta plazera sortzeko moduagatik maskulinoa eta femeninoa zena zalantza jartzen zuten gorputzak, queer ziren, hots, lesbianak, trabestiak, fetixistak... Horiek guztiak gizarte-espaziotik kanporatzen zituzten eta lotsaren mundura bazterten.

Hitzak, hitzen erabiltzaileak eta erabilera-testuinguruak aldatu egiten dira, ordea. Kasu honetan, bi mende eskas geroago, queer dena erabat irauli da. Queer denak kritika soziala eta aktibismo politikorekin harreman estua du. Egun, konotazio negatiboen eta irainen gainetik, gayak, lesbianak, bisexualak eta transgeneroak bezalako pertsona talde zabal bat definitzen du kontzeptuak, hau da, heteronormatibitatearekin hausten duten portaerak, pertsonak eta taldeak.

Kontzeptu ezberdinen sorrera eta erabilera gizarte-egitura deskribatu eta aldaketa bideratzeko nahiaren isla dira. Egin dezagun atzera, genero kontzeptuaren sorreraraino. Generoa sexuen kategoria biologikoari loturiko gizarte-kategoria bat da. Ez da berdina gorputz batekin edo beste batekin jaiotzea. Sexuak emakumeen eta gizonen patua markatzen du, pertsonaren etorkizuna baldintzatzen du. Generoa, beraz, sexu-kategoriak inplizituki dakarren determinismo biologikoarekin hausteko beharrari erantzuteko jaio zen. Emakumearen gutxiagotasun "naturalaren" sinesmenaren aurkako borrokari lot diezaiokegun kontzeptua da. Emakumearen gutxiagotasun-posizioa, giza izaeragatik baino arrazoi sozialengatik ematen zela defendatzen hasi zen. Hortaz, analisi zientifikorako kategoria berri horrek pertsonen eraikuntza identitarioen izaera kulturala agerian jarri zuen.

Emakumeari genero femeninoa lotu izan zaio; maskulinoa, berriz, gizonari. Lotura horiek motz geratzen dira, ordea. Gizadia ez da beti gizonen eta emakumeen artean banatzen. Ikerketa antropologiko ugariak baieztatu dute bi sexu eta bi genero baino gehiago aintzat hartzen dituzten gizarteak egon direla eta daudela.

Hamaika dira gizarte heteronomoaren arauak hausten dituzten adibideak: intersexualitatea, transgeneroa, pansexuala... Queer hitzaren baitan, 1990. hamarkadaren inguruan sortutako Queer teoriak zalantzan jarri ditu sexu-orientazioa nahiz genero- eta sexu-identitatea ere. Hortaz, Queer teoriak sexua, generoa eta sexualitatea gainditu nahi ditu, baita mendebaldeko gizarteetan nagusi den pentsamendu dikotomikoa (emakume/gizon, femenino/maskulino...) ere. Sexu eta generoaren baitan eraikitako identitatearen aurka egiten du, sexu-genero egitura gainditzeko helburuarekin.

Hitz ezagunak zaizkigu gizon eta emakume, femenino eta maskulino, heterosexual eta homosexual... Queer teoriak kategoriatu horiek errefusatu egiten ditu. Kultura heterosexualaren barruko murrizketa kontzeptualtzat jotzen ditu eta kategoriatu horiek barietate kultural ugari ezkututzen dituela diote.

Gure gorputzak, jarrerak eta jokabideak jaiotzetik bideratzen dizkigute eredu binarioaren baitan sar gaitzen, eta, bide batez, gure etorkizuna baldintzatzen dute. Edozein formulariotan gizon edo emakume bezala definitzera behartzen gaituen gure gizarte honetan, Queer mugimenduak klasifikaziorik ez dakarren aukera askeen alde egiten du, emakume- edo gizon-kategoriak ez baitira nahikoak, ezta beharrezkoak ere, pertsona guztiak izendatzeko.

BA AL ZENEKIEN?

- Biomedikuntzaren arloko eta zehazki giza sexualitateari buruzko ikerketek erakutsi dute hurrenez hurren gizon eta emakumeei dagozkien XX eta XY konbinazio kromosomikoez gain, XXY (gizonezkoetan Klinefelter sindromea) eta XO (emakumezkoetan Turner sindromea) ditugula, baita konplexuagoak diren eta bi linea zelular desberdin azaltzen dituzten konbinazioak ere: XX/XY, XY/XO.
- Herri amerindiarretako biztanleak **bi espirituak** dira, eta genero anitzaren rola betetzen dute. Bi espiritu terminoak gorputz berean elkarrekin bizi diren espiritu femenino eta maskulinoari egiten dio erreferentzia. Beren generoaren roletatik aldentzen diren pertsonak dira. Dualtasun horrek ia sakratua den errespetu bat ematen die.
- India, Pakistan eta Bangladeshko **Hijrak** hirugarren sexutzat ezagutzen den populazio multzo ezagun eta ugariena dira. Indian, sei milioi inguru bizi dira. Indibiduo intersexual edo, antza, maskulino jaiotzen dira, femeninotzat hartzen diren arropak janzten dituzte eta ez dira ez emakumetzat ezta gizontzat ere hartzen.
- **Transgeneroak** badu bere sinboloa. Bost marraz osatua dago. Bi marra urdinak dira eta genero maskulinoa irudikatzen dute; beste bi arrosak dira eta emakumearen generoari lotzen zaizkio. Erdiko marra zuriak, azkenik, genero-neutraltasuna, agenero edota intersexualitatea adierazten ditu.